


Eraikuntzaren kostuek, Euskal AEn, % 1,0 egin dute behera, 2023ko apirilean

Urte arteko terminoetan, 2023ko apirilean 2022ko apirilaren aldean, prezioek % 4,9 egin dute gora

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizeak % 1,0 egin du behera 2023ko laugarren hilabetea, hirugarrenarekin alderatuta, Eustatek emandako datuen arabera. 2022ko hil berarekin alderatuta, kostuek % 4,9 egin dute gora.

Eraikuntzaren sektoreko kostuek % 1,0 egin dute behera hil arteko terminoetan, eta Obra zibilekoek, % 0,9. 2022ko apirilarekin alderatuta, prezioak % 4,8 igo dira Eraikuntzaren kasuan eta % 5,0, Obra zibilaren kasuan.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte-arte aldakuntza-tasak sektoreka



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilaren aldean –2023ko martxoa–, **lehengaien** kostuek % 1,2 egin dute behera, eta **eskulanaren** kostuek egonkor mantendu dira. Urte arteko terminoetan, berriz, lehengaien kostuak % 5,7 egin du gora, eta eskulanenak, % 2,1.

Lehengaien kostuak bai Eraikuntzaren sektorean bai Obra Zibilarenean % 1,2 egin du behera hilen artean. Urte arteko bilakaeran, Eraikuntzako lehengaien kostuek % 5,7 egin dute gora, eta Obra Zibilekoek, % 5,8.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Apirila 2023

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	125,5	-1,0	4,9
Eraikinak	124,9	-1,0	4,8
Obra zibila	128,4	-0,9	5,0
Lehengaiak	127,5	-1,2	5,7
Eraikinak	126,7	-1,2	5,7
Obra zibila	131,2	-1,2	5,8
Laneskua	119,1	0,0	2,1

Oinarria 2015=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Maiatzaren 25a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Eraikuntzaren sektorean kontsumitutako lehengaien prezioetan, 2023ko apirilean, 2022ko apirilarekin alderatuta, igoyerarik handienak erregistratu dituztenak honako sektore hauetakoak izan dira: *Mineral ez-metalikoen industria* (% 18,8), *Mineral ez-metalikoak* (% 12,6), *Kautxua eta plastikoa* (% 12,1) eta *Zuraren eta kortxoaren industria* (% 8,1). Sektorearen lehengaiak diren produktuak ekoizten dituzten azpisektore nagusiak eta prezioen jaitsiera izan dutenak honako hauek dira: *Energia elektrikoa eta gasa* (% 20,0ko jaitsiera) eta *Petrolio-fintzea* (% 17,3ko jaitsiera).

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p) . Apirila 2023

	m / m-12
Ezmetalezko meak	12,6
Zuraren eta kortxoaren industria	8,1
Petrolio finntzea	-17,3
Industria kimikoa	3,1
Kautxua eta plastikoa	12,1
Produktu mineral ez-metalezkoak	18,8
Metalgintza	1,0
Metalezko artikulak	0,1
Material elektronikoa	1,3
Material elektrikoa	-1,4
Makinariaren fabrikazioa	5,5
Altzarigintza	6,7
Energia elektrikoa eta gasa	-20,0

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2023ko Maiatzaren 25a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

 Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62